

SINDIKALISTEN SOSTENGUA NAFARROA BAI KANDIDATURARI AGIRIA

NAFARROA JUSTUAGO ETA SOLIDARIOAGOAREN ALDE

Agiri hau sinatzen dugun sindikalistok, sindikatu batzuetan Nafarroan afiliatuak, modu pertsonalean, gure sostengua adierazi nahi diogu NAFARROA BAI koalizioari martxoaren 14ko hurrengo hauteskundeetan.

Egiten dugun jardun sindikalak gaurko egoeran eskatzen du Madrilen ahots propioa izaten lagunduko duen jarrera hartzea, nafar gizartearen gune horren garrantzizkoa eragiten duten arazoak salatu eta islatzeko.

Langileek beren bizimodu zein lan baldintzak hobetzeko daramaten etengabeko borroka gaur errealitate zaila bezain iluna ari da iragaten mundu ekonomiko globalizatuan, soldatapeko pertsonen eguneroko oztopoen aurrean inolako sentsibilitaterik ez duen honetan.

Begi bistako gogoeta honi erantsi behar diogu nafar eskuinaren jarrera, sektore atzerakoi eta neoliberalenen aliatu nagusi gisa gobernatzen ari dena. Bistan da haren agintzeko modua multinazionalen etekinak metatzeko grina erraztera zuzenduta dagoela gure bizi kalitatea murriztearen bizkar. Hortaz gainera, enpresa hauek beste tokietara alde egiteko eta Nafarroako lantegiak ixteko etengabe botatzen duten mehatxuaren bozeramaile lana ere egiten dute: KAYABA, TRW-Orkoien, SAS enpresetako gatazkak dira adibide garbiak.

Berezko industria politikaren garapenik ezak ere kezkatzen gaitu. Nafarroan izan diren azken gobernuek horren aldeko apostua egin dute, nahiago izan baitute eremua bakarrik enpresa transnacionalei zabalik utzi. Ezinbestekoa da industria plan bat sindikatuen parte-hartzearekin, bazterkeriarik gabe, sektore publikotik eta pribatutik lanpostuak sortuko dituzten politikak garatzeko; eta horretan behar beharrezkoa da ekoizpenerako ehun propioa eraikitzea. Aldi berean ezinbestekoa da enpresetarako laguntzen kontrola egitea, hauek nafar gizartearekin inolako konpromisorik izan gabe diru publikoak jasotzerik izan ez dezaten.

Halaber uste dugu espekulazioari bide ematen ari zaiola, pelletazo deitutakoari, alegia, berriki ikasi ditugun kasuetan bezala, kudeaketa publikoaren esanahian mesfidantza sustatuz. Aurrerapenaren inguruan kohesionatutako gizarte batek bide bakarra du: denon artean sortutako aberastasuna justuki birbanatzea. Nafarroan pairatzen dugun zerga sistemak betikora garamatza: batzuk gero eta aberatsagoak, gainerakoak berdin edo okerrago.

Uste dugu NAFARROA BAI, Madrilen, orain arte adierazitakoan indarra jartzen ahal duela, Nafarroako langileek dituzten erronkak bere eginez gure gizartearen ongizatean urratsak emateko, eta lan eta gizarte politiketan, azken denboretan horren urrituak izan direnetan, beharrezkoa den aldaketan laguntzen ahal duela.

Zehatzera joanik, banan-banan zerrendatuko ditugu gure kezkek:

Emakumearen bereizketa ekoizpen sisteman sartzeko orduan. Sektore honetan suertatzen da langabeziaren indizirik handiena eta horrek eskatzen du emakumeen enplegua eta eskubide eta aukeren benetako berdintasuna sustatzeko politika garbia, sexuarengatiko bereizketak zigortuko dituen eta lan bizia eta familiarena bateratzea posible eginen duena, emakumea pisurik handiena jasaten duena izan ez dadin.

Gazteen marjinazioa: lanera sartzeko dira prekarietate baldintzetan soilik; aukeran langabezia ala aldi bateko kontratuak, eta, noski, soldata eskala bikoitzak eta kontratu mugagabeetan baina baldintza makurragoetan. Honek ezinbestekoa egiten du egoera hau ezabatuko duten politikak ezartzea, lan egonkortasunik ezaren maila zailduko duten legeak, lan merkatuan sartzeko diren belaunaldi berriendako gutxieneko eskubideak defendatuko dituztenak, sektore hauek pairatzen duten bereizketa gero eta handiagoa galaraziko dutenak.

Langile etorkinen gainesplotazioak agerian uzten du zer zorrotasun gutxi dagoen lan ikuskapenetan etorkinei aplikatzen zaien legez kanpoko lanaren kontra. Eremu honetan beharrezkoak dira immigrazioak pairatzen duen bereizketaren aurka borrokatuko diren legezko neurriak, hala nola bere integrazioa eta gizarte ongizate duina ahalbidetuko dituzten politikak.

langile@nafarroabai.net

Aipu berezia merezi du, bere larritasunarengatik, **Nafarroako lan istripuen indize altuak**. Askok heriotza dakarte. Enpresen menpekotasunaren adierazleak dira, gertakari larri hauek ekiditeko erantzukizunak eta baliabideak galdatzeko orduan. Gainera, ezinbestekoa da borondate politikoa, zorroztasun handienaz arriskuei aurre hartzeko legeak aplikatuko dituen, urraketak kontrolatu eta zigortuko dituen.

Produkzio sektore guztietan **asteko 35 orduko lanaldiaren** aldarrikapen historiko eta gauzatu gabekoari eranstean dizkiogu honako hauek: gutxieneko soldata, bizitzeko adinakoa, hortik beheiti dauden pentsio guztien parekatzea eta oinarrizko errenta, bizimodu duina bermatuko duena, gizarte bazterkeria guztiei aurre egingen diena.

Langile autonomoen eta beren eskubideen defentsa. Soldata, lan baldintza eta aurreikuspen sozialari dagokienez gutxieneko kodearen aplikazioa. Hortik beheiti, kontratatzeko edozein mota ilegaltzat hartuko da.

Prezio duinetan oinarritutako nekazaritza errenta bat beharrezkoa iruditzen zaigu, beren ustiatagietatik bizitzen diren baserritarrentzat. Familia ustiategi nekazaritza eredu defendatu behar duela, berdintasun juridiko eta laborala lortuz, nekazaritzan aritzen diren langileentzat. Nekazaritza eraginkor baten alde borrokatuz, etorkizuneko eta kalitatezko elikadura lortuko dugu.

Premiazkoa da ingurumenaren inguruko praktikak lehenestea, natura gehieneko etekinaren aurrean jarriko dituztenak, energia aurrezkiak eta kutsadura gutxiago ekarriko dituztenak. Ekonomia solidarioaren esperientziak sustatu behar dira, politika neoliberalen sarraskien aurrean alternatiba garbia izanen direnak, garapen iraunkorra eta kontsumo erantzulearen eredu izanen direnak.

Ezin dugu ahortzi administrazioak eta enpresa askok euskarari erakusten dioten sentsibiltate falta, ikasteko zailtasunak jarriz eta barruko funtzionamenduan gaztelaniarekin batera ez erabiliz.

Uste dugu ahots aurrerakoi eta euskaltzalea den NAFARROA BAIk bermatzen digula pendiente ditugun eskaera hauek eta etorkizuneko erronka hauek oihartzun nahikoa izanen dutela erdiesteko egin behar den bidean.

Era berean beharrezkoa dugu Nafarroan dagoen zerga iruzurra salatzea, kaltea langileentzat izaten baita. Hauek, nonbait, kontrolatu beharreko subjektu bakarrak baitira, gehien aportatu behar dutenek ogasunari marro egiten dioten bitartean.

Agiri hau sinatzen dugunok sindikalistak gara, Nafarroako langile mugimendukoak baina gure ikuspegia ez da Nafarroara murrizten. EUSKAL HERRIKO gainerako langileekin batera gure gizarte eraldatzeko helburuak lortze aldera ari gara, baita gaur ukatzen dizkiguten soberania kuotak erdieste aldera ere. Hortaz, Lan, gizarte segurantzaren eta enplegurako politika aktiboen arloan eskumenak eskuratzeko bi gobernu autonomoek gaur duten mugak desagertu behar du. Gure lan esparru propioa kudeatuz soilik konpontzen ahalko ditugu arazoak.

Halaber, azpimarratu nahi dugu daukagun nazioarteko ikuspegia munduko langile guztien borrokan sistema ekonomiko eta politiko uniformatzaile eta inperialistaren aurka, hau gerra injustu eta interesatuen sortzailea baita, alde geografiko batzuen eta besteen arteko ezberdintasun handien eragilea eta aurre egin behar diogu txoko guztietatik.

NAFARROA BAIk, hauteskunde hauetatik aurrera, bide luzea du Nafarroa justuagoa eta solidariagoa lortze aldera.

TALDE BULTZATZAILEA :

Tita Zudaire /IRAKASKUNTZA (STEE-EILAS)	Pablo Erice /MIASA (CC.OO.)	Peio Garaikoetxea /RENFE (LAB)
Mikel Moreno /TRW (ELA)	Toña Navarro /SANYO (ESK)	Angel Larrañeta /VOLKSWAGEN (CGT)
Joaquin Garbisu /BASERRITARRA (ENHE)	Patxi Goñi /MONTAÑESA (ATTU)	Marian Irujo / (CC.OO.)
Jesús M ^a Andion /BHOS (ELA)	Imanol Murugarren /UCAR ELECTROD. (LAB)	Fernando Velazquez /SUHILTZALEAK (ESK)
Javier Armendariz /IRAKASK. (STEE-EILAS)	Ramon Ortiz /ADMINISTRATIOA (CGT)	Mikel Tarifa /MONTAÑESA (ATTU)

langile@nafarroabai.net

langile@nafarroabai.net